

Ikastaroan mamitutakoa erakusteko unea

Villabonako pintura ikastaroan aritzen da Flori Garcia; bertan ikasitakoa baliatu du Alegiako Erretirodunen tabernako erakusketa osatzeko //



Flori Garcíaren lanak daude ikusgai, Alegiako Erretirodunen tabernan. E. MAIZ

5.100.000 euroko aurrekontua onartu du Ibarrako Udalak

EH Bilduko eta EAJko hautetsien baiezko botoekin itxi dute 2020rako plangintza; besteak beste, kiroldegiko teilatua berrituko dute eta herri sarrera txukundu //

Haimar Altuna lizartzarrak Auzitegi Nazionalen deklaratu du

Euskal presoek eginiko 100 bat harrera ekitaldi «antolatzea eta koordinatzea» leporatzen diote; «iraganari lotuak nahi dituztela» da bere ustez auziaren helburua //



AMASA-VILLABONA HERRITARREN ESKU

Parte hartzea sustatzeko prozesua abiaraziko du Amasa-Villabonako Udalak eta 400.000 euro nora bideratu erabakiko dute herritarrek; martxoaren 9an hasiko dira proposamenak biltzen eta ekainean jakinaraziko dute emaitza //



harpidedun izateak badu saria

ERRIGORA proiektuko 3 saski

Udaberriko kanpainarako egin zure eskaera. Otsailaren 27tik martxoaren 12ra. www.errigora.eus



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Parte hartzeko delitu: **902-82 02 40** edo sartu ATARIAko ZOZKETAK atalean. Parte hartu hilabete honetan, martxoaren 2tik, martxoaren 16ko 12:00ak arte. Saridunen izenak martxoaren 17an, asteartea, argitaratuko ditugu.



ORIA  **BEILATOKIA**
TANATORIO

Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

400.000 euro herritarren esku, zein inbertsio egin erabakitzeko

Amasa-Villabonako Udalak parte hartzea sustatzeko prozesua abiaraziko du; martxoaren 9an hasiko dira proposamenak biltzen eta ekainaren 1ean emango dute emaitzaren berri

Asier Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak 400.000 euroko inbertsioa herritarren esku utzi du. «Herritarrek parte hartze zuzenarekin hartutako erabakiak askoz hobekak direla pentsatzen dugu», azaldu du Beatriz Unzue EH Bilduko alkateak. Alboan Maite Izagirre EAJren eta Maria Luisa Arijaren PSE-EEren hautetsiak zituen EH Bilduren alkateak. Izan ere, ekimena udalbatza osoak jarri du martxan, Herritarren parte hartze batzordearen bidez.

HERRITARRAK

Hainbat proiektu edo egitasmo egongo dira aukeran. Proiektu bakoitzak bere azalpena, irudia eta aurrekontua izango du eta herritarrek proiektu ezberdinak aukeratu ahal izango dituzte. Beti ere, 400.000 euroko aurrekontua gainditu gabe.

Amasa-Villabonan eroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritar guztiek hartu ahal izango dute parte, eta baita elkarte nahiz alderdi politikoei ere.

Proiektuak martxoak 9tik 29ra aurkeztu ahal izango dira eta baldintza batzuk bete behar dituzte, hau da, azalpen zehatza behar dute izan, eta proiektuaren justifikazioa eta aurrekontu zehatza aurkeztu behar dira ere. Horretarako udalak inprimaki berezi bat jarriko du herritarren eskura arreta zerbitzuan edo www.villabona.eus webgunean.

Udalak apirilaren 19rako aztertuko ditu proposamen guztiak. Horretarako udaleko teknikariak gainbegiratu dituzte proposamenen bideragarritasun ekonomikoa eta araudia. Era berean proiektuak legedia errespetatzen duen egiaztatuko dute,



Ezkerretik eskuinera Arija, Unzue, Izagirre eta Laborde. A.I.

besteak beste. Proiektua aurkeztu duten guztiek jasoko dute erantzun bat, hala ere.

MAIATZA

Villabonako Udalak jakinarazi duenez, maiatzaren 11tik 17ra emango dute informazioa. Behin aukeratzeko izango diren proiektu edo egitasmoen zerrenda erabakita, informazioa zabalduko dutela esan dute. «Helburua herritar guztiek galdeketa-aren informazio objektibo, garden eta erraz ulertzeko modukoa» jasotzea izango dela jakinarazi dute.

Udalak aldizkari berezia ere argitaratuko du eta herriko etxe guztietara banatuko du. «Horrekin batera ahalik eta tresna eraginkorrenak erabiliko dira herritarrek prozesuaren berri izan dezaten», gaineratu dute udaletik.

HERRI GALDEKETA

Behin proiektuak jasota eta aztertuta, herritarren esku egongo da horien arteko aukeraketa. Maiatzaren 22tik 31ra bozkatu

ahal izango da eta bi bide irekiko dituzte; bozketa telematikoa egin ahal izango da batetik, eta zuzenean bozkatu ahal izango da, bestetik.

Bozketa telematikoa egiteko herritarrek telefono mugikorretarako AMAVI App aplikazioa jaitsi beharko dute. Eta zuzenean bozkatzeko udaletxera jo beharko da, bertan jarriko baitituzte hautetsontzia eta boto-paperak. Bulegoa astean zehar arratsalde batez eta larunbata eta igande goizean irekita egongo da.

Bozkak maiatzaren 31n zenbatuko dituzte. Udal Idazkariaren eta Herritarren parte hartze Batzordeko ordezkari politikoak egongo dira kontaktetan eta horrez gain, ekitaldi publikoa egingo dute «herritarrek ikusle gisa parte hartu ahal izango dutelarik». Parte hartze prozesua ekainaren 1ean amaituko da; emaitzaren berri emango dute komunikabideen aurrean eta bertan jakin ahal izango da udalak zein proiektu abiaraziko dituen 2020ean.

«Agertoki politiko berrian ezker subiranismoa kolpatu nahi dute»

Haimar Altunak Auzitegi Nazionalean deklaratu behar izan zuen atzo, «terrorismoaren goratze» eta «biktimen umiliazio» delituak egotzita.

Rebeka Calvo Gonzalez

Lizartza

Haimar Altuna lizartzarrek Auzitegi Nazionalean deklaratu zuen atzo, euskal presoek egindako 100 bat harrera ekitaldi «antolatzea eta koordinatzea» leporatuta. Goizean deklaratu zuen beste bost pertsonarekin batera, eta arratsaldean Euskal Herrira itzuli ziren guztiak. Altunak berak, Lizartzan iluntzerako antolatutako batzar informatiboan parte hartzeko aukera ere izan zuen.

Altunak esan duenez, deklarazioa hartzea «formalismo hutsa izan da, legeak deklarazioa hartu behar digutela dio, eta bete dute. Gure abokatuaren galderei bakarrik erantzun diegu, baina esanguratsua izan da epaileaz eta fiskalaz gain, akusazioko beste hiru abokatu egon direla, justu Espainiako biktimen elkarte nagusietako abokatuak, hau da, Covite, Dignidad y Justicia eta AVT. Ikusiko dugu honek baduen ibilbiderik edo ez, eta epaiketara iristen den».

«EZ DA KASUALITEA»

Lizartzarren iritziz sumario hau ez da kasualitatea; «inoizko adostasun handiena dago euskal jendartearen bakea eta elkarbizitza eraikitzen jarraitzeko. Eta adostasun zabala dago ere preso, iheslari eta erbestera politikoak etxean behar dutela esaterakoan, agian ez guztiak batera, baina bai modu mailakatuan etxeratzeko, konponbide oso batek bakarrik ekarriko baitu bake justu eta iraunkor bat. Auzi honek helburu bakarra du; iraganari lotuak nahi gaituzte».

«Euskal Herriak badu gatazka politiko bat Espainiako Estatuarekin eta sustraiko gatazka horri aterabide zentzuzko eta demokratiko bat emateko ager-

toki politiko berri honetan berri ere ezker subiranismoa kolpatu nahi dute», gaineratu du. Madrilera deklaratzera joan beharra «herri honetako gehiengo baten nahi eta desiraren aurka» eraso bat» bezala ikusten du Altunak.

ETORKIZUNA

Urtarrilaren 22an atxilotu zuten lizartzarra, Oihana Garmendia, Antton Lopez Ruiz eta Oihana San Vicenterekin batera, guztiak Sortuko kideak. Atzokoan deklaratu zuten Juan Mari Olano eta Julen Larrinagarekin batera, eta aurreko astean Miren Zabaleta, Jorge

«Inoizko adostasun handiena dago euskal jendartearen bakea eta elkarbizitza eraikitzen jarraitzeko»

HAIMAR ALTUNA
SORTUKO KIDEA

Olaiz, Garazi Autor, Ikerne Indakoetxea, Alberto Matxain eta Irati Tobarrek gauza bera egin zuten.

Hamabiei terrorismoa goratzea eta ETaren biktimak umiliatzea egotzen diete, eta ez dakite datozen asteetan beste norbaitek deklaratu beharko duen ere.

Hiru urtean 100 bat euskal presoren harrera ekitaldiak antolatu edo koordinatu dituztela leporatzen diete.

Espainiako Barne Ministerioak berak jakinarazi zuen Altuna eta beste hiru pertsonak atxilotzerakoan harrerak hirugarren pertsona batzuek egin zituztela, baina atxilotutako «taldearen ildoari» jarraituz.

Lau atxilotuak egun berean utzi zituzten aske, baina deklaratu beharko zutela jakinarazi zieten.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxekolanak. Etxekolanak egiteko pertsona bat behar da Tolosan. Interesa dutenek 688 888 207 telefono zenbakira deitu behar dute, eguerdian (11:00-14:00).

Lan eskaintza

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da. Esperientziaduna eta euskalduna izatea eskatzen da. Interesa duenak, 647 446 363 telefono zenbakira deitu behar du.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Altzon etxebizitza tasatuak egingo dituzte, eta izena eman behar da

Martxoaren 18a baino lehen Altzoko udaletxean eman behar dute izena etxebizitzan interesa dutenek; obrak udan hastea aurreikusten dute, eta 2021eko udarako amaitzea



Ostatuaren azpian eta eskuineko etxebizitzaren jarraian eraikiko dute etxebizitza berria. E. MAIZ

Eneritz Maiz Etxarri Altzo

Altzoko Udalak Altzo Muñon egingo diren sei etxebizitza tasatuetan interesa dutenei izena emateko epea zabaldu die. Dagoeneko martxan jarria dute bigarren promozioa, eta obrak udan hastea aurreikusten dute.

Udalak sei etxebizitza tasaturen adjudikazioa egin dezan nahitaezkoa da izena ematea. Martxoaren 18an, 14:00etan, bukatuko da apuntatzeko epea. Altzotarrez gain, edozein herritarrek eman dezake izena. Izena ematerakoan ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira: eskaera egin beharko da; zinpeko aitorpena onartu beharko da orde-

nantza ezagutzen dela, ontzat ematen dela, eta bertako baldintzak betetzen direla eta beteko direla aitortuz; eta errolda historikoa eta 2018. urteko errenta aitorpena aurkeztu beharko dira.

LEHENTASUNA, ALTZOTARREK

Altzo Muñon egin zen azken etxebizitzaren antzeko ezaugarriak izango ditu orain eraikiko denak, eta Altzoko udal etxebizitza tasatuak arautzeko udal ordenantza jasota daude. 2012-03-30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, eta baldintza guztiak bertan agertzen dira.

Herri mailan, tarteka, herritarrei galdetzeko ohitura duela

adierazi du udalak etxebizitzetan interesaturik ba ote den jakiteko. Udazkenean lau interesatu egon litezkeela ikusi zuten, eta martxan jarri dute proiektua. Lehentasuna izango dute herritarrek eta zozketa bidez banatuko dira. Baina, altzotarrek guztiak osatuko ez balira, lehentasunen hurrenkera hau jarraituko lukete zozketarako: Altzon erroldatuak azken bi urteetan, Altzon erroldatuak, Tolosaldean erroldatuak eta bestelako pertsona fisikoak.

Lehen izen emate honetan etxebizitza guztiak ez balira beteko, etxebizitza eskatzeko epea beti irekita egongo litzateke udaletxean. Obrak 2021eko udarako bukatzea espero dute.

Txikia bai, baina eskasak ez direla argi dute, Baliarrainen

Uda bitarteko kultur eskaintza prestatu dute, eta amaitzeko Gure Zirkuaren bisita jasoko dute

E. Maiz Baliarrain

Badakite herri txikia direla baliarraindarrek, baina «harro» dau-de. Uda bitarteko kultur eskaintza prestatu dute *Txikia bai, baina exkaxa* ez lelopean.

Tere Irastorzaren poemekin eman zioten hasiera pasa den astean, eta hurrengo hitzordua emakumeek izango dute, igandean. Hileko azken ostiralean, bertso afaria egingo dute Zartagi jatetxean, Oihana Iguaran eta Andoni Egaña bertsolariekin. Afarirako txartelak Zartagin bertan erosi daitezke. Apirilaren 24an, berriz, Jose Migel Baran-

diaranen bizitzaren inguruko hitzaldia izango da.

TXEKORJATEA, ALDATUTA

Egunez aldatu dute Baliarrainen klasikoa den txekorjatea. Apirilaren 26an izango da aurten. Aurretik, antzerkia ikusteko aukera izango dute. Horrez gain, *Sexijentziak* antzerkia, San Isidro eguneko bazkaria edota San Joan sua egingo dituzte.

Bi bisita jasoko dituzte, Nomad Studio eta Gure Zirkuarenak: erretratuak ateratzeko aukera eskainiko diete herritarrei, eta zirkuaren magiak hartuko du herria hamabi egunez.

'TXIKIA BAI, BAINA EXKAXA EZ' EGITARUA

Martxoak 8, igandea

14:00. Herriko emakumeen bazkaria Zartagi jatetxean.

Martxoak 27, ostirala

Oihana Iguaran eta Andoni Egaña bertsolariekin afaria, Zartagi jatetxean (txartelak Zartagin).

Apirilak 24, ostirala

19:00. Jose Migel Barandiaranen bizitzaren inguruko hitzaldia, eta baita, Baliarrain herriarekin izan zuen harremanaren inguruan, Jon Aizpurua ataudarrari esker. Balloanitz gelan.

Apirilak 26, igandea

12:00. Antzerkia Jentilbaratz elkar-tearen eskutik. Belaunaldiz belaunaldi aitona-amonek sutondoan kontatzen zituzten ipuinak.

14:00. Txekorjatea.

Maiatzak 15, ostirala

19:00. Pituxa artistarekin *Sexijentziak* antzezlanaren herritar guztientzat, Balloanitz gelan.

Maiatzak 16, larunbata

14:00. San Isidroko bazkaria, Zartagi jatetxean (sarrerak Zartagin).

Ekainak 6-8

Nomad Studio. Bisitariak izango dira herrian erretratuak ateratzeko (doan). Argazkiak herriko artxiboan jasoko dira.

Ekainak 23, asteartea

San Joan sua. Urtero bezala, festa komisioak antolatuta.

Uztailak 22 - abuztuak 2

Gure Zirkuak denboraldi berriko egonaldia egingo du.

Gaur, euskal eskola publikoaren aldeko atxikipen argazkia

ALEGIA // Alegiako Iturri Zahar guraso elkarteak deituta, euskal eskola publikoaren aldeko atxikipen argazkia aterako dute, gaur, 16:00etan, eskolaren arian. *Euskal eskola publikoaz harro!* lelopean kanpaina abiatu du Gasteizko plataformak, eta Alegiak bat egin du: «Hezkuntza Sailak sare publikoarekiko erakusten duen utzikeriaren aurrean».

Altzoko Ostatuaren inaugurazio festa ostiralean egingo da

ALTZO // Altzoko Ostatua itxi zela hilabete batzuk pasa dira, eta udalak berriz ere, ateak zabaltzeko prest du. Jokin Zavalak hartu du Ostatua ustiatzeko ardura, eta hamar urteko kontratua izango du. Ostiralean, hilak 6, inaugurazio festa egingo dute herritarrentzat, eta 19:30etatik 21:30era bitarte izango da irekita.

'Soñando con alas' dokumentala, bihar, Elizpen zineman

ALEGIA // *Soñando con alas* dokumentala eskainiko da, bihar, 19:00etan Elizpe zineman. Juan Jose Ramos eta German Pinelo dira egileak, eta bost hegazti zale amorraturen istorioa kontatzen da. Haur bat, irakasle bat, eurodiputatu bat edo bere lana utzi duen psikiatra bat dira protagonistak, eta irudi ikusgarriez gozatzeko aukera ematen du.



zozketak

Atarikideentzat lau sarrera ditugu



Erlauntza antzezlan
Martxoak 6, 20:30etan,
Leidor antzokian.



Hansel eta Gretel
Martxoak 7, 18:00etan,
Topic zentroa.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Dendetako maulkak kalera aterako dituzte larunbatean

Braderie azoka hartuko du Tolosak larunbatean; produktuak merkeago erosteko aukera izango da



67 saltokitako produktuak kalera aterako dituzte larunbatean. JON MIRANDA

Erredakzioa Tolosa

Tolosa&Co Tolosako komertzio txikien elkarteak antolatuta, Braderie azoka izango da larunbatean. Kaleak eta saltokietako kanpoaldeak eskaintzaz betetzen dituen azoka honetan, 67 saltokik hartuko dute parte egun osoan, 10:00etan hasi eta 20:00ak bitarte.

Beste urteetan bezala, saltoki gehienetako arduradunek den-den kanpoaldean kokatuko dute euren produktuekin osatutako postutxoa. Batzuek euren denda kokatzen den kokagunean bertan jarriko dute postutxoa, eta nukleo komertzialetik urrutiago daudenak Triangulo plazan jarriko dutela azaldu dute elkartetik. Postu horietan jarriko dituzten produktuak stockean dituz-

tenak dira, eta ohikoa baino prezio merkeagoan eskainiko dituzte.

EGITARAU BEREZIA

Tolosa&Co elkarteak dioenez, Braderie «Tolosako saltoki txikien festa handia izatea nahi da». Horregatik, egunak festa kutsua har dezan, egitarau berezia prestatu dute elkartetik larunbaterako. «Etxeko txikientzako ekintzak ere antolatu ditugu, guraso eta helduek komertzio txikian kontsumitzearen aldeko filosofiara hurbildu ditzaten», azaldu dute.

Hala, 10:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 20:00etara Haur Txokoa jarriko dute Trianguloa plazan. Bertan, parkea, arpegiak margotzeko tailerra, eskulanak eta puzgarria jarriko dituzte.

Arratsaldean, 17:00etatik 18:30era, Tolosako Erraldioen eta Buruhandien konpartsa ibiliko da Tolosako kaleetan zehar. Plaza Berrian hasiko dute ibilbidea, eta Errementari kaletik, Trianguloatik, San Frantzisko pasealekutik, Gernikako Arbola-tik, Foru Etorbidetik, Nafarroa Etorbidetik eta Oria kaletik igaro osten, Emeterio Arresera iritsiko dira.

Tolosa&Co elkartetik «komertzio txikiak Tolosari ematen dion bizitza» nabarmendu dute. «Estali gabeko merkatalgune atsegina da Tolosa, inoiz ez geldi ez isilik egoten ez dena». Horregatik elkarteak herrira gerturatu eta komertzio txikian kontsumitzeko hautua egitera gonbidatu ditu herriarrak, «bai Braderie festan, bai eta beste egun guztietan ere».



Siemens Gamesako langileak kaleratzeen aurkako protesta batean. JON MIRANDA

Bihar ere greba egingo dute, Siemens Gamesan

«Hitzarmen duina eta enplegu bermea» eskatzen dute; negoziazioetan adostasunik ez bada greba mugagabeari ekingo diote

Erredakzioa Asteasu

Asteasuko Siemens Gamesan txandaka lanean ari diren langileek lehen greba eguna izan zuten atzo. Biharko ere greba eguna deitu dute, eta «hitzarmen duin bat eta enplegu bermea lortu arte enpresarekin adostasunik lortu ezean», greba mugagabeari ekingo diotela jakinarazi du enpresa batzordeak.

2019 urteko urtarrilean enpresarekin hitzarmen berria negoziatzen hastean, bi helburu garbi zituen Asteasuko Siemens Gamesako enpresa batzordeak: «Enplegu bermea eta hitzarmena, hau da, orain arte enpresak sortu dituen langile kolektiboen diskriminazioa eta soldata arrakala txikitzeko bidean has-tea».

Batzordetik jakinarazi dute-nez, enpresak enpleguaren bermea hitzarmenarekin loturik

izan behar duela jakinarazi zien. «Ez hori bakarrik, hitzarmena baldintzatu nahi izan du enpresako langile batzuen lan baldintzen kontura», gaineratu dute.

Hori ikusita, enpresa batzordeak enpresaren proposamenean pisu txikiena zuen kolektiboa deitu zuen asanbladara: txandaka lanean ari direnak edo errele-bistak. «Asanbladan honako proposamena egin zen, martxoaren 3an, eta martxoaren 5ean, greba egunak izatea. Eta enpresarekin adostasunik lortu ezean, martxoaren 9tik aurrera greba mugagabea hastea. Asanbladaren emaitzak oso argiak izan ziren. 79 baieztako, 32 ezeztako eta 3 zuri».

Atzo izan zen Siemens Gamesa Asteasuko erreleboetako langileen lehendabiziko greba eguna, eta deitzaileek azaldu dute-nez, «erabateko jarraipena» izan zuen deialdiak.



ataria
argazki lehiaketa

Mozorro hoberenaren bila



ALDEKOA

Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuzzidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia

R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
• 943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria

LURLAN
BASERRITIK ZURE ETXERA
DOL. KATERA TITXERA

Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
• 943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atariakideen saria

Alegiako Erretirodunen tabernan koadro berriz osatutako erakusketa jarria dute paretetatik zintzilik; Flori Garcia billabonatarrak pinturako ikastaroan margotutakoak dira.

Pintatzearen plazera bistaratuz

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Pintatzeak badu zer-bait. Harrapatu egiten du jendea, eta horietako askok koadro ugari margotzen dituzte. Kasu horietako bat da Flori Garcia billabonatarrena.

Txikitatik duen zaletasuna pintura ikastaroan apuntatuz ase zuen, nahiz eta, nahi baino denbora gutxiago dedikatzen dion margotzeari. Urteak daramatza margoen eta pintzelen artean, eta koadro asko pilatu ditu etxean. Orain, Alegiako Erretiro-

dunen tabernak eman dio aukera, herritik kanpo, lehen aldiz, bere lanak erakusteko. Otsailean jarri zituen aukeratutako koadro batzuk erakusketan, eta hilabete honetan ere Flori Gariaren lanek apainduko dituzte tabernako paretak.

Bisitarien zain egongo dira datozen asteetan tamaina, kolore eta estilo ezberdineko koadroak. Eta baten batek atentzioa deitu, eta gustatuz gero, erosteko aukera ere eskaintzen du billabonatarrak. Horretarako, tabernako arduradunekin hitz egitea nahiko litzateke, egilearekin harremanetan jartzeko.

«Ikastaroko bi orduak motz egiten zaizkit, eta gehiago pintatu nahiko nuke»

FLORI GARCIA
MARGOLARIA

E. Maiz Amasa-Villabona

Flori Garcia billabonatarra da, eta asko gustatzen zaio margotzea. Nahi baino gutxiago pintatzen duela adierazi digu, eta pintatzeko txoko bat izatea gustatuko litzaiokeela.

Noiz hasi zinen margotzen?

Umetatik gustatzen zait pintatzea, eta urte askoan ez dut aukerarik izan. Baina behin haurrak hazi direnean, niretzat denbora hartzea pentsatu nuen, eta pintatzen hasia.

Herriko pinturako ikastaroan apuntatu zinen?

Bai, urtero antolatzen ditu udalak ikastaroak, eta horietako batean eman nuen izena.

Eta zer moduzko esperientzia izan da?

Oso ona. Ikaragarri gustatzen zait, eta ez naiz batere aspertzen. Izugarri gustatzen zait pintatzea.

Ikastaroan izena eman aurretik bazenekien zerbait pintatzen?

Apuntatzerako banekien zer gustatzen zaidan eta zer ez. Estilo ez oso definitua gustatzen zait, pixka bat abstraktua. Denetarik gustatzen zait, baina batez ere, espresionista esango nuke. Hori da nire estiloa eta irakasleak erakusten digu nola margotu; era batera edo bestera pintatzeko aholkuak ematen dizkigu, eta baita nola egin ere. Zalantzak ditugunean galdetu egiten diogu, eta beti ditugu zalantzak.

Zein teknika erabiliz margotzen duzu?

Ni lehendabizi akrilikoarekin hasi nintzen, baina, azken urteetan, olioarekin pintatzen dut. Olio oso ondo dago, eta asko gustatzen zait, baina baita akriliko ere. Dena gustatzen zait. Gauza batzuk pintatzeko bata hobe da, eta beste gauza batzuetarako bestea.

Zer margotzen duzu?

Argazkiak edo irudiak hartzen ditut, eta kopiatzen saiatzen naiz. Noski, berdina ez zait ateratzen. Zure estiloa ematen diozu koadroari eta zuri ateratzen zai-zuna egiten duzu. Berdina ateratzea ezinezkoa da.

Eta zer ematen dizu pintatzeak?

Izugarri gustatzen zait, eta bi ordu niretzat dira. Zoragarria da. Bi orduak motz egiten zaizkit, eta gehiago pintatu nahiko nuke. Asteko egun gehiagotan margotu nahiko nuke.

Ikastaroan bakarrik margotzen duzu?

Bai. Lehen etxean margotzen

nuen, baina lan asko ematen du. Ez dut toki bat margotzeko, eta sukaldean margotzen nuen. Kontuz ibili behar duzu ezer zikindu gabe ibiltzeko, gauza guztiak atera eta gorde,... eta etxean pintatzeari utzi nion. Ez du inongo gogorik izaten gauzak atera eta gordetzen ibiltzeko, ez da txoko bat horretarako edukitzea bezala.

Esaterako, koadro bat margotzeak zenbateko lana eskatzen dizu?

Irudiaren arabera, baina hilabete eta erdi edo bi hilabete egi-na daukat. Txikia bada azkarra egiten duzu, lan gutxiago du. Batzuei oso zehatz marraztea gustatzen zaie, baina ni ez naiz horietakoa.

Hamar urte badaramatzazu pintatzen koadro mordo bat izango dituzu honez gero?

Bai, bai. Erakusketan jarri ditudanez gain, oparitura ditut batzuk. Etxean badauzkat, eta ganbaran ere badituzt gordeta beste

batzuk.

Lehen aldia da erakusketa jartzen duzula?

Bai, modu honetara bai. Herrian ikastaroa amaitzen dugunean urtero jartzen dugu erakusketa, urtean zehar egin ditugun lanekin. Ia inor ez da joaten ikustera [barreak] familiako kideak, eta batzuetan horiek ere ez.

Eta nolatan iritsi zitzaizun proposamena?

Aurretik ikastaroan nirekin ari den lagun batek izan zituen Alegian jarrita. Ea beraren atzetik nik jarri nahi nituen galdetu zidan, eta animatu egin nintzen. Eta horrela izan da. Tabernakoari eman nizekion eta berak jarri ditu, eta uste dut oso ondo geratu direla.

Pintatzen jarraitzeko asmoa duzu?

Ahal dudan bitartean bai. Izugarri gustatzen zait, eta ikaragarri gustatuko litzaidake pintatzeko txoko bat izatea zikintzeko beldurrik gabe; bakarrik edota lagun batekin konpartituz.



Erretirodunen tabernan ikus daitezke Flori Gariak margotutako hainbat koadro. ATARIA

Irati Saizar Artola Ibarra

Urtea amaitzerako onartua zuen aurrekontua Ibarako Udalak; EH Bilduko sei hautesiek eta EAJ alderdiko lauek eman zuten baiezko botoa, eta PSE-EEkoa ez zen bilkurara joan. 5.100.000 euro ingururekin itxi zuten aurtengoa. Martxan zituzten lanekin jarraitzeaz gain, kiroldegiko teilatu berria, herri sarrerako obrak eta Bizi Nahi elkarteak konponketak lanak izango dituzte helburu nagusi.

Herriko hainbat eraikin edo gune identifikatu ditu udalak berritzea edo txukunketa bat egitea behar zutenak. Horieta-ko bat da kiroldegia. Eraikinak frontoia eta kantxa ditu, eta kantxako teilatu guztia eraberrituko dutela azaldu du Igor Zapi- rain Ibarako alkateak: «Estalpea berritzeaz gain, Uz- turpe ikastola aldera ematen duen leihoetan harmaila txiki bat ireki nahi dugu; era berean, hotstabetu ere egin nahi dugu». Inbertsioen «zatorik handiena» kendu die obra horiek; 380.000 euro inguruko kostua izango dutela aurreikusi dute. Udan egin nahi dituzte obra lanak, eta dagoeneko hasiak dira agi- riak batzen eta osatzen.

SARRERA TXUKUNTZEKO

Beste inbertsioetako bat herri sarreran egin nahi dute, hau da, Tolosa eta Ibarra elkartzen diren eremuan. Batetik, seinali- zazioak sinplifikatu nahi dituzte: «Tolosatik Ibarra zoazela bi herrien izenak zazpi aldiz edo ikus daitezke, eta behin eta txukun jartzearekin nahikoa dela iruditzen zaigu». Horrez gain, Apatta industriagunera igotzeko seinaleak ez daudela egoki jarrita azaldu du Zapi- rainek, eta kamioiak, askotan, «nahastu» egiten direla. Beraz, seinalea Tolosa alderago jartze-



Uda honetan egingo dituzte berritze lanak Ibarako kiroldegian. I. SAIZAR

Helburuak zehaztu dituzte aurtengo aurrekonturako

Ibarako kiroldegiko teilatua berrituko du aurtengoa; herriko sarrera txukundu eta Bizi Nahi elkarteak konponketak egiteko asmoa ere azaldu du

ko eskatuko diote Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Herri sarrerarekin lotuta, murla dagoen inguru horretako baranda izorratuta dagoela dio Ibarako alkateak. Hori horrela, baranda kendu eta jardi-

nera bat jarriko dute errepide aldamenean: «Plaza giroko eremu bat sortu nahi dugu, banku batzuekin. Oinezkoentzat gehiago ahalbidetu nahi dugu». Era berean, bertan dau- den edukiontzia tapatu egin

nahi dituzte, «herrira sartu eta lehen planoan gera ez daitezen».

«ERAKARGARRIAGOA»

Aurtengoa, Bizi Nahi elkarteak txukundu bat eman nahi dio

udalak. Hilabeteak daramatza bertako tabernak itxita, eta zerbitzua ematen hasi aurretik berritu egin nahi dutela azaldu du Nagore Zubillaga Ibarako zinegotziak. Txukunketa lan horiek amaitzen dituztenean aterako dute tabernako zerbitzua lehiaketara. Aurtengoa, beraz, sarrera eta tabernako lurra aldatu eta pintatzea da asmoa. «Erakargarragoa egin nahi dugu bai erabiltzaileentzat eta baita lan egingo duenarentzat ere», zehaztu du Zubillagak.

PIPERRAREN BIDEA

Ibarako ezaugarri nagusiene- tako bat da piperra. Bere «pre- sentzia indartzeko», liburu bat kaleratuko dute aurtengoa, eta horrekin batera *piperraren bidea* sortu nahi dute: «Zirkuitu bat sortu nahi dugu, familiartean paseo bat eman ahal izateko». 2018an sortu zen Piperraren Mahaia, eta bigarren bilkura bat egingo dute aurtengoa, liburua eta bidea aurkezteko.

Izaskun auzoan ibilbide bat egin nahi dute aurtengoa. Izaskun jatetxetik hasi eta zirkuitu bat seinalatzea pentsatu dute, hiru kilometro inguru izango ditue- na. «Nahiko eroso da ibilbi- dea, aldapa gutxi duena; edo- nork egiteko modukoa izango da», azaldu du Zapi- rainek.

Ingurumenari dagokionez, ikerketa bat egin nahi dute eguzki plaken inguruan. Kirol- degiko estalpean jarritako hasi nahiko lukete, baina horretara- ko ikerketa eginda eduki nahi dute.

Bestalde, iaz hasitako lanei jarraipena emateko asmoa era- kutsi dute. Besteak beste, argi- teriari dagokionez, LED argiak jarriak dituzte hainbat auzotan eta aurtengoa auzo gehiagotara iristea da asmoa. Iaz barandak berritzen eta margotzen hasita- ko lanei ere jarraipena izango dute aurtengoa.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Matxalen Mendizabal eta Maider Isasa, lehen txapelak

Infantil nesken mailako historiako Gipuzkoako lehen xare txapelketa irabazi dute

Erredakzioa Irura

Lehen aldiz antolatu dute nesken arteko Gipuzkoako Xare Txapelketa, infantil mailan, eta Matxalen Mendizabal eta Maider Isasa izan dira txapelak. Naroa Goenaga eta Nahia Gorriti bikoak 30-18 hartu zuten menpean.

Hasiera estua izan zuen partidak, eta Goenaga-Gorriti bikoak ondo eutsi zion Mendizabal-Isasa II.a bikoari, batez ere Gorritiren lan onari esker. Hala ere, par-

tidaren erditik aurrera Matxalen Mendizabalen nagusitasuna agerian geratu zen, eta Isasaren laguntza onarekin, lasai antzean lortu zuten garaipena, txapel historikoak lortuz. Ohorezko koadroa Nora Galartzak eta Irati Fernandezek osatu dute.

Gipuzkoako xare txapelketetako finaletakoa bat izan zen hori, guztiak Irurako Ametsa trinketean jokatu zirenak aurreko larunbatean. Infantil mutilena, Bernal-Lopetegi eta Yarza-Heras bikoek jokatu zuten. Faboritoak Bernal-Lopetegi ziren, ligaxkan elkarren kontra jokatuak partidan erraz nagusitu zirelako, baina usteak erdia ustel, eta Yarza-Heras bikoak ezustekoa eman eta 30-24 irabazi zuen. Oso partida ona jokatu zuten, bai Yarzak bai Herasek, bikote lan ona osatuz.

Herasek ondo eutsi zien Lopetegiren erasoei atzealdean, eta Yarzak bikain aprobetxatu zuen, bere bikotekidearen defentsa ona, tantoak ondo amaitzeko. Bernalek lan ona egin bazuen ere, ezin izan zuen Yarzarekin.

Kadete mailako mutilena izan zen azken finala, eta Zabalegi-Isasa I.a bikoak nahiko erraz hartu zuen mendean Lopetegi-Huitzi bikoak, 35 eta 24 irabaziz. Ez zegoen faborito argirik. Lopetegi-Huitzi bikoak finalerdietan emandako maila onari esker, aukerarik izan zezakeelako, azken partidako mailan jokatu. Baina ez zen horrela izan, eta Julen Zabalegi eta Iker Isasaren mendean egon ziren partida osoan. Hauek oso partida ona jokatu zuten, eta ez zuten ezusterako zirrikiturik utzi, huts gutxi eginez, eta defen-



Maider Isasa eta Matxalen Mendizabal, txapelak. ATARIA



Gipuzkoako Txapelketako finalak jokatu zituzten pilotariak. ATARIA

tsan bikain arituz. Horrez gain, erasoan ere asmatu egin zuten.

Federazioko, udaleko eta Ametsa Pilota Elkarteko orde-

kariak sariak banatu zituzten eta bildutako jendearen txaloekin eman zitzaion amaiera Xareko Gipuzkoako Txapelketari.

Domina zaparrada Euskadiko txapelketetan

Tolosa CF-ko atletek 20 domina lortu dituzte pista estalian jokatu diren txapelketetan

Erredakzioa

Pista estaliko Euskadiko txapelketetan hogeita hamar domina lortu dituzte Tolosa CF-ko atletek. Horietatik hamalau pasa den larunbatean, 16, 18 eta 20 urtez azpiko lehiaketetan. Zortzi urrezko domina lortu zituzten, horietako bat June Sudupek. 600 metroko lasterketa guztia bakar bakarrik eginez, 1.40ko denborarekin Espainiako Txapelketarako 16 urtez azpikoetan gutxienez lortu. Mireia De La Parrak luzera jauzian 5,39 metroarekin jantzi zuen txapela, eta Espainiako 20 urtez azpiko txapelketarako gutxienez eskuratu zuen.

Ander Martinez de Rituertok pertika jauziko txapela lortu zuen berriro ere lau metrotik



Espainiako Txapelketara joan zen Tolosa CF-ko ordezkaria. ATARIA

gora jauzi eginez, eta 4,10 metro-ra iritsiz. Iker Esnaola, marka pertsonala eginez, txapelak izan zen pisu jaurtiketan 12,98 metroko jaurtiketarekin.

Ane Martinek bere nagusitasuna erakutsi du beste behin eta 1.000 metroko txapelak bilakatu zen 3.08ko marka bikainarekin. Ander Aristi larrauldarra izan zen beste behin ere domina gehien lortu zituen atleta urdina, hiru guztira. Hirukoitza jauzian txapelak bilakatu zen 11,69 metroko jauziarekin.

Ibone Ezeizabarrenak sasoiko dagoela erakutsiz 1.500 metroko txapelak izan zen 4.58ko markarekin. Mikel Ezkerro, marka pertsonala eginez, 60 metro hesietako txapelak bilakatu zen 8,36rekin.

Bost zilar lortu zituzten, eta horietako bat Mario Estangak pertika jauzian, 3,50 metroarekin. Manex Civico bigarren izan zen 1.000 metroan, 2.50rekin marka pertsonala eginez. Ander Aristik bi zilarrezko domina lortu zituen: hesietan 9,28ko mar-

karekin eta 300 metroan 38,44rekin. Joseba Larrauri ere bere markatik gertu ibili zen eta 200 metroan txapeldunorde izan zen.

Brontzezko domina bat lortu zen eta hori Mikel Irastortzak eskuratu zuen, 60 metro hesietan 8,67ko marka eginez.

Bestalde, orain bi aste buru egin zen Donostian Euskadiko Pista Estaliko Txapelketa nagusia. «Antolakuntzak atleta asko kanpoan utzi zituen, eta oso parte hartze eskasa izan zen txapelketan», azaldu dute Tolosa CF-tik. Taldekoek emaitza onak eskuratu zituzten, sei domina lortuz: hiru urte eta hiru brontze. Ander Uranga Euskadiko txapelak bilakatu zen 200 metroan berriro ere 22 segundotik jaitsiz, eta 21,85 eginez. Nora Ituarte txapela jantzi zuen 7,87 eginez 60 metroan. Beste urrea Maria Felisa Okomok lortu zuen, pisu jaurtiketan 12,75 metro eginez.

Brontzei dagokionez, Joseba Larraurik 200 metroan 22,12 egin zuen, bere marka pertsonala lortuz. Laura Biurrunek bere domina ere 200 metroan lortu zuen, 27,04rekin. Eunate Martinez de Rituerto gorako jauzian izan zen hirugarren, 1,58 metroarekin.

Horrez gain, txapelketan Sergio Romanek master mailako Gipuzkoako errekorra hobetzea lortu zuen, 4.08ko markarekin.

HIRU ATLETA ESPAINIAKO TXAPELKETA NAGUSIAN

Parte hartze ederra izan da Tolosa CF-ren aldetik asteburuan Ourense egindako pista estaliko Espainiako Txapelketa Nagusia, inoiz klubak eraman duen kopururik altuena. Hiru atleta eta bi entrenatzaile joan ziren bertara. Maria Felisa Okomo bere Tolosa CF-ko errekorra gainditzeko zorian izan zen eta lehiaketa oso erregular batekin 4 kiloko bola 13,23 metrora bota eta pisu jaurtiketan zazpi garren izatea lortu zuen.

Nora Ituarte ere bertan izan zen, bigarren aukeran onartua izanik. Lehiaketa izugarria eginez Ituarte bere marka pertsonala bitan hobetuz finalerdietara igarotzea lortu zuen, 7,74ko marka eginez. Ander Uranga ere sailkatu zen 200 metroan parte hartzeko baino ez zen bere markatik gertu ibili. Hirugarren kalean korri egiteak proba honetan asko zigortzen du Ourenseko bezalako erradio txikiko bihurtzea duen pista batean, eta 22,24rekin, ez zuen kanporaketa gainditu.



ASTEAZKENA, 2020KO MARTXOAK 4
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 04

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Anoetako emakumeak herriari erakusketaren inaugurazioa, liburutegian, 18:30etan.

Alegia. Euskal eskola publikoaz harro-ri atxikipen argazkia aterako dute eskola atarian, Iturri Zahar guraso elkarteak deituta, 16:00etan.

Ibarra. Nola lagundu haurrari irakur-zale izaten? tailerra, 17:00etan. 17:30ean ipuin kontaketa. 4-9 urte bitarteko haurrei eta gurasoei zuzenduta. Liburutegian, 17:00etan.

Tolosa. Emakueen Nazioarteko Egunaren harira, mahai ingurua: *Kolonialismoa-Arrazakeria-Feminismoa*. Tolosaldeko Asanblada Feminista, Mujeres del Mundo, Mujeres No Domesticadas eta Plataforma Rosa Cortes por la Memoria Gitana-ko kideekin, kultur etxean, 19:00etan.

Tolosa. *Viajes por el mundo a fotografiar primates* Juan Jose Melo naturalista, blogger eta argazkilariekin. Antxon Bandres Bidalarien Txokoan, 20:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, eguneko berriak, Joseba Landa Bartzelonatik eta eskualdeko musikarien proposamen musikala.

11:00. Desafioa. Herri kirolak.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika.

16:00. Zebraidea. Magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

16:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza Imanol Artola Felix-ekin.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. JM Sanchez. Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendikalea, 6 behealdea. 943 67 51 18.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. Lantzeko inauteriak Bermeon

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. XXII. Gabiria-Legazpi Rallys-printa

23:00. Lotsagabe

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giroa lasaitzen joango da. Goizean euri zaparrada batzuk izango ditugu, orokorrean ahulak. Arratsaldean atertzen hasiko da eta egun amaierarako aterti geratuko da. Termometroak 13-15 gradu bitartean geratuko dira.



Bihar. Giro euritsu eta kaxarra. Beste fronte batek eta ipar-mendebaldeko haizeak euri-giroa eta tenperaturen beherakada ekarriko dituzte. Temperatura ez da 9-11 gradutik pasako eta elur-maila 1.000 metroan izango da arratsaldean.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



FLANDIARREKIN ELKARTRUKA

Hiru urte daramatzate Menen herriko ikasleek Tolosaldera etortzen, Orixe BHiko ikasleekin elkartrukea egitera. Bada, Flandriako gazteak hemen dira berriro, eta atzo egin zien harrera Tolosako zinegotzi Patxi Amantegik. Astebetez izango dira Tolosan, Glocal challenges izeneko proiektuaren barruan, eragin lokala duten erronka globalak lantzen, besteak beste, aldaketa klimatikoa, ekonomia zirkularra, elektromugikortasuna edota kontsumo jasagarria. TOLOSako UDALA



Erreserbak:
609 714 203 • 943 68 21 75

Elbarrena Kalea, 20490 - Lizartza
Aroztegi baserria, 9 Tel.: 609 71 42 03

Asteartetik larunbatera afariak
Larunbat eta igandetan bazkariak

BAILARA
RESTAURANT

**ZURETZAT
ERE BADA**



Eliz Bailara, 8 - 20496 BIDANIA-GOIATZ [GIPUZKOA] | T. +34 943 681 234 | bailara.com

IRIARTE JAUREGIA**** HOTEL